

# Euskal Eskola Publiko-Burujabea helburu

ELA sindikatuaren  
dokumentua EAEko  
Hezkuntza Legearen  
Aurreproiektuaz



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**

**EUSKAL SINDIKATUA**



# ELA sindikatuaren dokumentua EAEko Hezkuntza Legearen Aurreproiektuaz

## SARRERA.-

EAEko Hezkuntza Lege berri baten aurreproiektua argitara eman du Eusko Jaurlaritzak Momentu egokia da klase sindikatu abertzale batek bere proposamenak plazaratzeko eta etorriko diren aldaketa horietan eragiteko.

Hezkuntza ezinbesteko elementua da gizarte baten etorkizuna eraikitzerakoan. Enpresa munduak hezkuntza bere interesen alde erabili nahi du etorkizunean bere esanetara izango diren soldatapeko langileak hezteko. Gure sindikatuak uste du hezkuntzaren eragin ekonomikoa gutxietsi gabe, hezkuntza oinarritzak dela ekitatea eragiteko, etorkizuneko hiritarrei munduari buruzko balio eta ezagutzak transmititzeko eta hauei buruzko ikuspegi kritikoan gaitzeko, bi estaturen zapalkuntza pairatzen duen eta hezkuntza edo kultura propioa duen herri baten biziraupen ikuspegitik ere funtsezkoa da.

ELAk hezkuntza sistemaren eraldaketa nahi du. Egun indarrean den hezkuntza ereduak hainbat aje ditu, ondoren azalduko dugun moduan, eta aldaketa sakonak ezinbestekoak dira. ELAren ustez eragile ezberdinek diagnostikoa eta helmuga partekatu beharko litzateke, horren arabera ibilbidea ere partekatzeko. Oso kontziente gara aldaketak ezingo direla bat-batean gauzatu, baina norabidea partekatzea izan beharko litzateke gizarte-akordio baterako oinarria, norabidea partekatuta (abiapuntu ezberdinak izan arren) etorkizuna eraikitzeke gaitasuna irabaziko baitugu.

Dokumentu honek ELAk egindako hausnarketa dakar. Batetik, egungo sistemaren diagnostiko labur bat egin dugu. Bigarrenik, ELAren ustez hezkuntzak izan beharko lukeen ortzimuga azalduko dugu. Hirugarrenik, Legebiltzarrean adostutako Hezkuntza Hitzarmenari eta Hezkuntza Lege aurreproiektuari buruzko ELAren iritzia. Eta, azkenik, ELAk hurrengo Hezkuntza Legeari eskatzen dizkion gutxiengoak.

## DIAGNOSTIKOA.-

ELAren ustez aldaketa baterako oinarria diagnostiko partekatu baten gainean eraiki beharko litzateke. Hezkuntza Hitzarmenaren bueltan faltan bota dugu eragile ezberdinen diagnostikoa ezagutzea, horren baitan eragin beharreko aldaketei zentzua emateko. Ondoren azalduko diren aje hauek ELAren ikuspegiaren arabera dira, noski, eta ez diote erantzuten diagnostiko oso bati, elementu nagusiak baino ez dira azaltzen:

### 1.- ESKUDUNTZA ERREALIK EZ

Espainiako oinarritzako legediak eta beren garapenak erabat mugatu dute EAEko hezkuntza alorrean hartu daitezkeen erabakiak. Denboran erabaki esparrua are gehiago mugatu da eta fikzio bat litzateke Hezkuntza Lege baten bitartez hezkuntza eredu propio bat garatu daitekeela pentsatzea. Espainiako marko kurrikularra ezartzen eta inposatzen da, gero eta marjen gutxiago dago EAEko ikasgaiak eta beren edukiak zehazteko, adibidez. Eskuduntza ezak ere eragin zuzena du sare banaketan, profesionalen prestaketa eta hautaketan, lan-baldintzetan eta ia hezkuntza eremuko arlo guztietan. Eskuduntza faltak Espainiako gobernu ezberdinen asmo homogeneizatzaileei erantzuten die, batzuek modu gogorra eta besteek xaloagoan erabili dutena.

Eskuduntzarik ez izateak eta Jaurlaritzaren pultso ezak ekarri du, besteak beste, Euskal Herria marko erreferentzial moduan gero eta esparru gutxiagotan azaltzea, eta ez soilik hezkuntzan. Autonomi Erkidegoak eta Espainia erreferentzia gero eta naturalagoak dira, ia ekidiezinak.

## 2.- HEZKUNTZA ENPRESEN ZERBITZURA

Hezkuntza prozesuak enpresen beharrei erantzuten die eta ez gizarte moduan dauzkagun erronkei. Hezkuntza prozesuaren bukaeran enpresek eskatzen dituzten profilen araberako langileak daude, ez eztabaida demokratiko baten ondorioz gizarteak dituen beharrei erantzungo dieten hiritarrak. Gure ustez hau erabat lotuta dago Jaurlaritzaren aldetik eredu produktiboari buruzko politikarik ez egotearekin, inbertsio publikoa palanka moduan erabiltzeari uko egitearekin edo eredu industrialik ez izatearekin. Gure politika produktiboa herrialde hau enpresentzat erakargarria izango den lurraldea bihurtzea bada, hezkuntza enpresentzako langileak sortzeko makina izatea ezinbestekoa da.

ELAren ustez ezinbestekoa da gizarte moduan zer produzitu behar dugun erabakitzea, demokratikoki, planetaren mugak onartuta, emakumeen eskubideak bermatuta edo pertsonon zaintza erdigunean kokatuta, eta hezkuntzak horri erantzun beharko lioke.

Era berean, hezkuntzak gaitasun kritikoa izango duten hiritarrak prestatzea izan beharko luke helburu gisa, eta gure ustez kapitalaren beharrei erantzuten dieten pertsona akritikoak heztea bihurtu da helburu erreala. ELAren ustez ezagutzen espezializazio goiztiarrak edo humanitateetako ikasgaiak gero eta gehiago zokoratzeak horri erantzuten dio.

## 3.- EUSKALDUNTZEA BERMATZEN EZ DUEN HEZKUNTZA

Euskararen erabilerari buruzko azterketek erakusten dute egoera kritikoa gaudela. Ezagutza formala ez dago erabat bermatuta eta ezagutza praktikoa gero eta mugatuagoa da. Arazo honi ezin zaio soilik hezkuntzatik heldu (lan-mundurako estrategiak, estrategia komunikatiboak, aisialdiarekin lotutakoak eta bestelakoak beharko dira, besteak beste), baina, era berean, hezkuntza ezinbestekoa da.

D ereduak ez du erabat bermatzen ikasleen ezagutza, A eta B ereduetan ezinezkoa da. Horrez gain, ez dago estrategia eraginkorrik ezagutza formalaz gain euskararekiko lotura emozionalak estrukturalki lantzeko eta ikasgelatik kanpoko jardueretan euskararen lanketa bermatzeko (jantokietan, aisialdian, eskolaz kanpoko jardueretan...).

## 4.- SEGREGAZIOA ERAGITEN DUEN SARE BANAKETA

Arrazoi ezberdinengatik EAEn egoera anormal bat bizi dugu, hezkuntza bi saretan dago banatuta %50ean. Eta anormalitate horrek segregazioa eragiten du. Kasu honetan ere esan dezakegu segregazioa eragiteko beste arrazoi batzuk ere badaudela (arrazoi sozioekonomikoak, EAetik kanpoko ikasleentzako estrategia falta euskararekiko atxikipena sortzeko, integrazio politika transbertsalen falta...), baina sare banaketa eta itunpekoan ikasle zaurgarriak salbuespenez hartzeak segregaziorako arrazoi garrantzitsuak da. Eskola publiko jakin batzuek pilatzen dituzte ia ikasle zaurgarri gehienak (badira ere A ereduko itunpeko eskolak ikasle zaurgarriak betetakoak), Itunpekoa doakoa ez izateak edo ikasleen hautaketa giteak horretan eragin zuzena du.

Sare banaketaren anomalia gainditu beharrekoa da, gure apustua argia da sare publiko, euskaldun, autonomiadun eta anitzaren alde. Euskal Hezkuntza sistema publiko burujabea eraiki nahi dugu egungo sistema duala gainditzeko.

#### 5.- HEZKUNTZA PUBLIKO ZENTRALIZATUA

EAEko eskola publikoak eredu oso zentralizatu bati erantzuten dio. Eskolek ez dute baliabide errealek legeak teorikoki onartzen duen autonomia garatzeko. 1993ko EAEko legeak eta Espainiako legediak eredu jakobino bati erantzuten dio, goitik beherako eskema administratibo bati. Administrazio eredu partekatuak, munizipalistak, hezkuntza komunitatearen parte-hartze zuzena bideratuko dutena ezarri beharrian, Jaurlaritzaren goitik-beherako erabakietan oinarritzen den eredu bultzatzen da (baliabideak eskatu eta ezartzeko, proiektuak garatzeko, berrikuntzak eragiteko, kurrikuluma garatzeko...) eta teoriarik eskolek dauzkaten eskumenak ezin dira garatu horretarako baliabiderik ez dagoelako. Langileen behin-behinekotasun izugarriak honetan ere eragin zuzena du, langileak ezin dira inplikatu eskola proiektu baten eraikuntzan egonkortasunik gabe.

Era berean, zuzendaritzek ez dute baliabiderik eta ez zaie zilegitasunik aitortzen plangintza pedagogikoak garatu eta hauek lideratzeko.

Kohesiorako elementu batzuk ezarrita eta zehaztuta, hezkuntzak deszentralizazio prozesu bat behar du tokian tokiko errealtateei erantzun, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bultzatu eta eskolen kudeaketa demokratikoa garatzeko.

#### 6.- BALIABIDE URRIKO HEZKUNTZA

EAEEn azken aurrekontuetan Barne Produktu Gordinaren %3,86 bideratu zen unibertsitatez kanpoko hezkuntzara. Europako batz-bestekoa %4,7koa da eta UNESCOk %6ko inbertsioa egitea gomendatzen du. Baliabide ezak ondorio zuzenak ditu, gutxienez, hurrengo alorretan:

- Langileen lan-baldintzetan.
- Hezkuntzarako beharrezko liratekeen azpiegiturak izatean.
- Hezkuntzarako materialak sortu eta garatzeko aukerarekin, era honetan editorialen tiraniatik askatu ahal izateko.
- Hezkuntzaren erabateko doakotasuna bermatzeko ezintasunean. Doakoak izan beharko liratekeen jardura osagarriak, eskolaz-kanpoko ekintzak, jantokia, garraioa eta bestelakoak ezin dira bermatu finantziario eskasiarengatik.
- Hezkuntza Google moduko multinazionalen esku uztean. Gure haurren datuak oparitzen ari gara, gure haurrek ezagutzen duten ingurune digital bakarra Google-ek inposatutakoa da (etorkizunean horrek eragingo duen menpekotasunarekin), pedagogikoki eztabaidagarria den etapetan ordenagailuak inposatzen ari dira... Eta dena multinazional horrek baliabideak emateko ezartzen dituen erraztasunen baitan.

#### 7.- LAN BALDINTZETAN DESEGONKORTASUNA NAGUSI

2000. urtetik aurrera lan baldintzen negoziazioa desagertu egin da hezkuntza alorrean, sektore publikoko beste esparruetan bezala. 2010eko maiatzetik aurrera hau mugara eraman da.

Sindikatuontzat aurrekontuen politiken kontu-emate bilakatu da negoziazio izan beharko litzatekeenean. Hezkuntza publikoan inposaketa eta gutxiengo sindikalarekin akordioak hedatu dira

eta Itunpekoan ordezkariak sindikala alboratuta, negoziazio esparru erreala patronalen eta Administrazioaren artekoa bilakatu da. Esandako guztiaren ondorioz lan-baldintzen hobekuntzak soilik etorri dira gatazken eraginez.

Honek guztiak langileen aldetik desatxikipena ekarri du, sisteman sinisgarritasuna galtzea, hezkuntza proiektuekiko urruntasuna eta, kasu askotan, lanarekiko ilusioa galtzea.

Aurreko markoa, gainera, langileen zahartzearekin batera etorri da. Bi sareetan langileen batzbesteko adina 50 urtetik gorakoa da eta hurrengo urteetan errelebo oso azkarra emango da, honek berarekin dakartzan aukera eta arriskuekin.

Eta testuinguru honetan Eusko Jaurlaritzak jaiotze tasaren murrizketa ikastetxeen fusioen bitartez kudeatu nahi du. Ezegonkortasuna nagusi den sektore honetan fusioek eta profesional profilen aldaketak egungo langileen lanpostuak arriskuan jartzen ditu, horregatik iruditzen zaigu horren larria ekainean beste sindikatuek Jaurlaritzarekin itxitako akordioa.

ELAren iritziz lan baldintzei dagokionez hurrengoak dira arazo nagusiak:

- Negoziatorako marko demokratikorik ez egotea (patronal zein administrazioen lan-baldintzen inposaketa da nagusi) eta langile guztien ordezkariak aintzat ez hartzea (itunpeko langileekin ez baitira negoziatu).
- Eskola publikoan ezegonkortasuna eta langileek beren eskolekiko atxikipen emozionala izateko zailtasuna egonkortasun falta horren ondorioz.
- Itunpeko eskoletan jaiotze-tasaren murrizketak ekar dezakeen enplegu suntsiketa edo berregituraketa kudeatzeko marko egonkorrik ez izatea, eta egungo sistema erretiro partzialarekiko erabat menpekota izatea benetan gauzatu ahal izateko (birkokapena erabat lotuta baitago errelebo kontratuari).
- Eskola publikoko hautaketa sistemak ez dio erantzuten langileek lana modu egokian egiteko gaitasuna frogatzeari, gaitasun memoristikoa saritzen da. Irakasleen kasuan gaitasun pedagogikoak ez lehenestea arazo larria da.
- Itunpekoan kontratazio sistema iluna da eta ez dator bat finantziario publikoa horren nabarmen jasotzen duen sistema batekin.
- Irakasle ez diren langileentzako ez dago parte-hartzerako espazio errealik, bigarren mailako langileak dira.
- Administrazioaren aldetik itundutako eskoletako langileei lan-baldintzak azpikontratazio merkearen logikaren arabera ulertzen dira, dirua aurrezteko.
- Azpikontratazioaren hedapena (garbikuntza, garraio edo jantokia, esaterako). Negoziario egiteko helburua duten enpresek etekinak lehenetsi dituzte, langileen lan baldintzen zein zerbitzuaren kalitatearen kontra.

## 8.- ERLIJO KONFESIONALAREN DESAGERPENAREN BEHARRA.

Erljioaren presentzia konfesionala ez da egokia. Eremu honetan ere erlijio eta sinismen sistema ezberdinen ezagutza eskaini beharrean eta honen ondorioz horiei buruzko irakurketa kritikoa egiteko gaitasuna eman beharrean heziketa konfesionala bideratzen da. Erljioen presentzia konfesionala desagertu behar dela uste dugu, beraz. Esandako desagertu prozesua bateragarria izan behar da egun lanean ari diren langileei bizitza duin bat bermatzearekin.

## ELAren HELBURUAK EAerako HEZKUNTZA LEGE BATEN BUELTAN

ELAn badakigu ez dugula gaitasunik eta ez dagoela baldintzarik sindikatuak defendatzen duen hezkuntza eredia epe laburrean ezartzeko edo egungo eredia erabat aldatzeko. Hori esanik, hurrengo legeari begira bi helburu ditugu:

- Epe laburrean Aldatzerik ez dagoen gaiekiko tentsio politikoa sortzea, epe luzeagora aldaketak posible izan daitezen. Tentsio deitzen diogu proposamen eta ekintzen bitartez gizartean eraldaketarako gogoia pizteari eta elementu horiekiko pedagogia egiteari.
- Aldaketak epe laburrean egiteko aukera dagoen elementuetan norabide aldaketa argi bat eman dadila.

### ALDAKETAK ZEIN NORABIDETAN NAHI DITU ELAK?

ELAk hezkuntza sistema burujabea nahi du, burujabea Espainia eta Frantziaren eredu unformatzailetik, burujabea ere kapitalaren eta enpresen nahi pribatuengandik. Euskal Herria erreferentzi-marko gisa duen hezkuntza euskalduna nahi du. Bizikidetzarako balioen transmisioa (hezkidetzak, naturarekiko errespetua, herrikideekiko errespetua...) egingo duen hezkuntza eredia nahi du, baina ere berean ikasleei ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna emango diena.

Baliabide nahikoa izango duen hezkuntza sistema nahi du ELAk, Barne Produktu Gordinaren %6 behintzat jasoko duena. Eta baliabide horien banaketa orekatzailea nahi du, jatorriz behar gehien duten ikasleei baliabide gehigarriak eskainiko dizkiena.

ELAk hezkuntza sistema bakarra, publikoa eta anitza nahi du, egungo sare banaketa gaindituko duena eta tokian tokiko errealitateei erantzungo diena. Hezkuntza komunitatearen parte hartze zuzena bermatu behar da, kudeaketa demokratiko baten baitan. Kohesio elementu batzuk sistema guztian bermatzea eskatzen du ELAk, baina, era berean, eskolen autonomiatik aniztasunari espazio ematea. Kohesio soziala bermatzea eta aniztasunari bide ematea izan behar dira hezkuntza sistemaren elementu nagusiak.

ELAk euskararen ezagutza bermatzen duen hezkuntza sistema nahi du; horretarako euskara irakas-hizkuntza orokortu bakarra izatea nahi du, eta ikasgelatik kanpoko jarduera guztiak euskaraz emango direla bermatzea. ELAk euskarazko murgiltze eredia nahi du.

ELAk hezkuntza sistema laikoa nahi du, sinesmen guztiak errespetatuko dituen, gizartean diren erlijio eta sinismenen ezagutza bermatuko duena, baina konfesionaltasunerako espaziorik izango ez duena.

ELAk behar bereziak dauzkaten ikasleei erantzungo dien hezkuntza sistema nahi du eta horretarako baliabideak ezarriko dituena.

Eta, noski, ELAk lan baldintza egokiak bermatuko dituen hezkuntza nahi du, zuzendaritza lana aintzatesteko baliabideak ezarriko dituen, langileen hautaketa sistema azterketak gainditzean baino ebaluazio jarraian oinarrituko duena, negozioazio kolektiborako eskubidea bermatuko duena, lanpostuen egonkortasuna ziurtatuko duena eta behar bezala lan egiteko baliabideak izango dituen.

## ORAIN ARTE ADOSTUTAKOAREN BALORAZIOA

### 1. IKUSPEGI OROKORRA

Eusko Legebiltzarreko alderdi ezberdinek akordio zabala lortu dute Hezkuntza Hitzarmenaren bueltan. Adostutako testuak bi zati ezberdin ditu, lehena filosofikoa eta bigarrean legetik kanpo jasoko diren hainbat neurri azaltzen dira.

Testu filosofikoak ez du diagnostikorik eta ez du norabiderik ezartzen. Orokorkeria batzuk jasotzen dira, baina ez da ezartzen Hezkuntza zein norabidetan jarriko den. ELAren ustez orokorkeria hauek horrela jasotzeak erakusten du sakoneko aldaketarik egiteko borondaterik ez dagoela eta egungo markoa ontzat ematen dela.

Bigarren zatian dagokionez, lan-taldeak eta legez besteko araugintza aipatzen dira, baina ez dago jakiterik horiek hezkuntzak egun dituen sakoneko arazoak, batzuk behintzat, aldatuko dituzten ala ez. Horrez gain, elementu askotan ez da erraz ulertzen zergatik planteatzen den garapen guztia Legearen estalpetik kanpo egitea, ELAren ustez, logikoena litzateke lege bidez gai guztietan norabideak eta oinarritzko araugintza egitea eta, ondoren, dekretu eta erregelamendu bitartez legearen garapena ematea.

ELAren ustez alderdi guztiek aurreko marko hau ontzat ematearen arrazoia, edukien gainetik akordiorako gaitasuna dutela erakutsi nahi izatea da, eta benetako aldaketak adostu ez dituzten arren, hobekuntza nabariak egin dituztenaren itxurak egitea nahi izan dute. Hala, Elkarrekin Podemosek hezkuntza publikoaren defendatzaile gisa agertu nahi izan du, eta EH-Bilduk euskaltzale gisa, eremu batean zein bestean testuak hobera egin ez arren.

Hezkuntza Legearen aurreproiektuak ere itxurakeri horri erantzuten dio. Batetik, asmo orokorrak jasotzen dira ondoren benetan gauzatzeko neurri zehatz edo baliabiderik ez dutenak. Bestetik, hezkuntza eredu baten definiziorako ezinbesteko diren elementuak legetik atera eta dekretu bitartez garatuko direla dio, ondorioz, ez dago jakiterik nola garatuko diren. Demokratikoki iruzurra egitea da hori, gizarteari eta Legebiltzarrari eztabaidak ezkututzen baitzaizkio. ELAren iritziz, prozedura honek helburu bakarra du, egungo hezkuntza ereduari eustea.

Honek ezin zuen bestela izan, besteak beste alderdi guztiek ontzat eman dutelako Hezkuntza Legea Espainiako legediaren garapen hutsa izango dela. Eusko Jaurlaritzak orain gutxi argitaratutako *“La erosión invisible”* liburuxkan argi azaltzen da hemen ez dagoela hezkuntza lege autonomo bat garatzeko eskuduntza eta aukerarik. Hitzez-hitz Jaurlaritzak hau dio: *“se puede afirmar que esa competencia (hezkuntzaz ari da) supera de manera pírrica el carácter de competencia de ejecución, toda vez que las facultades normativas aparejadas ahora a la misma son testimoniales”*. Alderdi guztiak dira honen jakitun eta denek ematen dute ontzat orain LOMLOEren garapen hutsa izango den legea onartzea, hau da, oinarritzko aldaketarik ekarriko ez duen Hezkuntza Lege bat. Azken honen adibide da orain LOMLOEk inposatutako kurrikuluma garapena nola ari den ematen Eusko Jaurlaritzak inongo alternatibarik planteatu gabe. Zatea, filosofia ikasgaia desagertzea ontzat ematen duena eta hezkuntzaren merkantilizazioan sakontzen duen ikasketa teknikoaren garapena dakarrena. Hau da, hemen hezkuntza legeari buruzko akordio bat publiko egiten da, ikasleei erakutsi behar zaiena Madriletik inposatzen den aldi berean, eta honek ez du inoren kritikarik eragin.

Esandakoaz gain, ELArentzat mingarria izan da gizarte eragileei parte-hartzea bideratzeko modua. Erabiliak sentitu gara. Ez da parte-hartze edo negoziazio espazio errealik izan. Honetan ere eszenifikazio bat eman da Legebiltzarrean, eragile askoren ustezko parte-hartzea bideratzeko,



baina, ondoren, emaitza elite politikoen negoziatutakoa izan da. Euskararen alorrean gertatutakoa oso deigarria izan da guretzat, Hezkuntza Komunitatearen babes zabala zuen eskaera aipatu ere ez da egin dokumentuan.

## 2. ERALDAKETARAKO ASMORIK EZ: Asko idatzi dagoenari eusteko

Aurretik esan bezala, ELAk argi du hezkuntza lege honekin ezingo dela erabat irauli hezkuntza sistema, baina norabide bat exijitzen diegu euskal alderdiei. Hezkuntza Hitzarmenak eta Hezkuntza Lege Aurreproiektuek ez dute norabiderik ezartzen; aldaketa batzuk proposatzen dituzte, baina ez dago jakiterik aldaketa horiek egungo hezkuntza eredua mantentzeko hartzen diren. ELAren ustez garrantzitsua da epe laburreko erabakiak baloratzerako epe luzera begira eragile bakoitzak zein asmo duen ezagutzea, horizonteak partekatzea.

1993ko Hezkuntza Publikoko Legeak EAeko hezkuntza sistema Espainiakoaren barnean homologatzea izan zuen helburu. Egun proposatzen den legeak ez dakigu zein helburu duen, ez baitago diagnostikorik edo gaintitu beharreko gaien zerrendarik. Testuingururik gabeko proposamen zehatz batzuk azaltzen dira, etorkizunerako proiektuorik gabe.

Hezkuntza Legearen aurreproiektua aztertuta argi dugu elementu nagusietan dagoela aldaketarako nahirik eta formulazio ezberdinen atzean egungo sistema betiketza bilatzen dela, aldaketa txiki batzuk proposatuta. Hala iruditzen zaigu hezkuntza sare banaketarekin, hezkuntza ereduarekin, lan-baldintzekin, eduki kurrikularrarekin, hezkuntzaren finantziarioarekin, erlijioarekin edo behar bereziak dauzkaten ikasleekin.

## 3. ESPAINIAKO MARKO KURRIKULARRA ONARTZEN DA: Homogeinizazioari eta merkantilizazioari bide idekia.

Gernikako Estatutua onartu zenetik Espainiako Kongresuak hezkuntza lege bakoitza eskuduntzak mugatzeko erabili du eta EAeko autonomia gero eta gehiago garapen eskuduntza soil bilakatu da. ELAren ustez ez dago pulstu politikorik hau eztabaidatzeko; Oinarrien dokumentuan zuzenean uko egiten zaio eztabaida honi, hezkuntzaren muina, kurrikuluma aipatu ere ez egiteraino.

ELAren ustez ezinbestekoa da Hezkuntza Legearen eztabaida horretarako probestea eta Espainiatik ezartzen joan den marko uniformatzaile eta merkantilista salatzea.

Hezkuntzaren teknifikazioa bizi dugu, espezializazio goiztiarra edo jakintza humanistikoaren alboratzea, hori dena kapitalaren beharrei erantzuneko dien hezkuntza sistema izateko.

Era berean, Aurreproiektuan Euskal Herria marko erreferentzial eta kultural moduan erabiltzeari uko egiten zaio ikasle guztientzako kohesio elementu gisa. Eskolen autonomiaren baitan hau garatzeko aukera egon daiteke, baina EAeko hezkuntza sisteman Euskal Herria ez da existitzen. Euskal kultura aipatzen da, ez dago jakiterik, ordea, kultura horren lurralde markoa zein den.

ELAren ustez eskuduntzen markoa eztabaidatu beharko litzateke eta, era berean, marko kurrikular propioa eraikitzekeko prozesu bat ezarri legean, Espainiatik eta enpresetatik inposatutakoa gaintitzeko. Marko normatiboa eztabaidatu gabe hezkuntza lege eraldatzaile bat egin daitekeela pentsatzea fikzio hutsa da, eta fikzio hori elikatzeak gure herria Espainian sakonago txertatzea besterik ez dakar, Espainiak dakarren ikuspegi homogeinatzaile eta merkantilistarekin batera. Alderdi guztiek hau ontzat ematea etsigarria da.

#### 4. EZ DAGO BALIABIDE AURREIKUSPENIK: Nola bermatuko da doakotasuna?

Hezkuntza Legearen Aurreproiektuak ez du finantziario aurreikuspenik Azken urteetan hezkuntzara bideratutako finantziarioa Europako batz-bestekotik urrunduta egin da (Europar BPGaren %4,7ko bideratzen da hezkuntzara, EAEn %3,86a besterik ez dago aurreikusia 2022rako), eta legeak kontrako bidean aritu beharko luke, hasteko hiru urteko epean Europako batz-besteko inbertsiora iritsi, Barne Produktu Gordinaren %6rako ibilbidea egiten hasteko. 2022ko aurrekontuek ez dute inolako hobekuntzarik jaso; beraz, argi dago ez dagoela borondaterik hezkuntzan inbertsioa benetan handitzeko.

Are gehiago, Hezkuntza Hitzarmenean espreski aipatzen da jaiotza-tasaren jaitsierak "plangintza arrazionalizatzea dakarrela ... gehiegizko eskaintzak saihestuz". Hau da, ontzat ematen da ikasgelak itxi egin beharko direla. Jaiotza-tasaren murrizketa aukera da egungo profesional kopurua mantenduta edo beharrezko litzatekeen etapetan gehituta zerbitzu ratioak txikitu eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Aurretik aipatutako fusio eta itxierak izango dira jaiotze tasaren jaitsiera kudeatzeko erredua. Kasu zehatzen batean agian ekidiezina izan daiteke horrelako neurriren bat hartzea, baina ELAren ustez testuinguru honek aukera eman behar du ikasleekiko gertutasuna irabazteko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.

Finantziarioa ez aipatzeak dakar, besteak beste, ez jakitea itunpeko sarearen erabateko doakotasuna bermatzeko baliabideak nondik aterako diren. Kuoten desagerpenak ekar dezakeen finantziario beharrak nola bideratuko diren ere ez da azaltzen, itunpekoan eskaintzen diren jarduera ezberdinen kontrola nola egingo den edo eskola batzuetan dauden ekipamendu garestiak nola mantenduko diren (legebiltzarkideek doakotasuna bermatzeko eskola arruntetan ez dauden baliabideak zerga bitartez ordaintzerik nahi ez badute, behintzat).

Honekin batera, Hezkuntza Legearen Aurreproiektuan ez da aurreikusten eskolen finantziarioaren kontrola egiteko baliabide espezifikorik, ezta eskolen finantza-gardentasuna bermatzeko neurri zehatzik ere. Gai hauek guztiak Legea onartu ondoren dekretu eta erreglamenduen bitartez garatuko omen dira, hau da, eztabaida ekidin nahi dute. ELAk gardenki aritzea exijitzen du eta Legea argia izatea. Orain arte ere legez itunpeko hezkuntzak doako behar zuen, zergatik izango da ezberdina hemendik aurrera inongo neurri berririk ezartzen ez bada?

Doakotasuna bermatzeko ezinbestekoa izango da eskola jarduera osagarriak eta zerbitzuak behar bezala arautzea. ELAren ustez euskal hezkuntza sisteman jarduera osagarriak eta zerbitzuak doakoak izan beharko liriateke eta eskola guztiei irizpide berdinen arabera eskaini beharko litzateke horietarako finantziarioa. Hau hala izan beharko litzateke berdintasun eskubidea edo kohesio soziala bermatzeko eta zeharkako zerbitzuen bitartez haurren hautaketarik egon ez dadin.

Gai honetan Aurreproiektuak berri on bat dakat, Haurreskolak doakoak izango direla zuzenean esaten baita, ELAk urtetan egindako eskaera.

#### 5. LAN BALDINTZAK EZ DIRA AIPAGAI: Nola eskaini kalitatezko hezkuntza lan baldintzak horretara bideratu ezean?

Hezkuntza Legearen Aurreproiektuan ez dira aipatu ere egiten (soilik zuzendaritzako kideek jaso dezaketen soldata osagarria eta garapen profesionalerako eskubideak azaltzen dira, beste zehaztasunik gabe). EAEko hezkuntza sistemak lan-baldintzekin hainbat arazo ditu eta lege honek konponbidea eman beharko lieke. Edo legean jasotzen ez bada, sindikatuekin akordio bat egin beharko litzateke Lege honen garapenean langileek izango dituzten gutxieneko lan-baldintzak

ezartzeko. Alderdiak eta Jaurlaritzak orain arte ez diote honi inongo garrantzirik eman, kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko ezinbestekoa izan arren.

6. SARE BANAKETA BETIKOTZEN DA: Ez dago segregazioaren aurkako neurri zehatzik.

ELAren ustez orain sareen banaketa gainditzeko tarteko proposamen bat egin beharko litzateke hasieran definitu dugun sistemara publiko anitzeko bidean. Aurreproiektuak egungo sare banaketa sistema betikotu nahi duela ematen du, hezkuntza alorreko patronalen erreakzioa ikusita.

Hezkuntza Hitzarmenean segregazioari (edo euskalduntzeari) aurre egiteko programa-kontratua izango zen tresna, baina Aurreproiektuaren arabera programa-kontratu bidez finantziazioa bideratzea borondatezkoa izango da, ondorioz, ez dago segregazioaren aurkako neurriak betearazteko legezko modurik. Horretarako legeak aurreikusten duen bakarra hau da: “*berme-mekanismoak sustatuko dira*”.

Segregazioarekin amaitzeko matrikulazio sistema orekatzaile bat bermatu behar da. Aurreproiektuak ez dute matrikulazio proposamen zehatzik egiten: helburu orokorra ezartzen da, baina helburu horretara iristeko neurri zehatzik ez dago. ELAren ustez matrikulazio bulego bakarra behar da, tokiko hezkuntza komunitatearen ezagutza eta irizpide orokorrak jasoko dituen eta emaitza orekatua bermatuko duena.

Sarreran aipatu bezala, badakigu Lege honek ezin duela erabat irauli hezkuntzaren egoera, baina etorkizunean aldaketa sakonagoak egin ahal izateko oinarriak ezarri beharko lituzke, eta horretarako itunpeko eskoletako hezkuntza komunitateek borondatez publikifikatzeko asmorik agertuko balute, publikazio hori gauzatu ahal izateko marko bat eraiki beharko luke Legeak, besteak beste langileen subrogazioa bermatuko duena. Aurreproiektuak, baina, hirugarren xedapen gehigarrian hau etorkizunean garatuko dela aipatzen du.

7. EZ DAGO ESKOLEN KUDEAKETA DEMOKRATIKORIK

ELAren ustez Hezkuntza Legean eskolen kudeaketa demokratikorantz urratsak eman behar dira. Legean hainbat organoren sorrera aipatzen da zentzu honetan lagun dezaketenak. Ez dago jakiterik, ordea, horretarako balioko duten, organo hauen partaideak, eskuduntza zehatzak eta baliabideak zeintzuk izango diren ez direlako ezartzen, Hezkuntza Sailak aldebakarrez ezarriko ditu zehaztapen hauek etorkizunean

ELAren ustez hezkuntzak izan behar du kohesioaren eta aniztasunaren onarpenaren arteko oreka egokia. Ondorioz, Hezkuntza Legeak kohesiorako gutxieneko elementuak definitu beharko lituzke eta, era berean, tokiko hezkuntza komunitateei baliabideak eman beharko lizkieke autonomiaz proiektu pedagogikoak eraikitzeko, hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztien parte-hartzea bermatuta proiektuen diseinu, erabaki eta kudeaketan.

Ez dugu jakiterik Tokiko Hezkuntza Kontseiluak, Euskadiko Eskola Kontseiluak, Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak, Euskararen Ikaskuntzarako Institutuak edo Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroak esandakoarentzat baliagarriak izango diren. Badakigu, aldiz, orain arte izan diren parte-hartze espazioak ez direla nahikoak izan.

Are gehiago, Euskadiko Eskola Kontseiluaren kideen izendapen eta funtzionamendu araudia desagertu egin dira, aurretik legez araututa zegoenean.

Horrez gain, ikastetxeetako Eskola Kontseiluan zuzendaritzako kideen lanaren onarpen espazioak dira, hau da, ez da sustatzen plangintzen diseinu, kudeaketa eta betearazpenean hezkuntza

komunitatearen parte-hartzea. ELAri ere ez zaio egokia iruditzen zuzendaritzen izendapena aldebakarrez Hezkuntza Sailak egitea (hezkuntza komunitatearen iritzia jaso egin behar du soilik). Eta ez da aukerarik ez eskumenik garatzen Eskola Kontseiluetatik kanpo guraso, profesional eta gizarte eragileek espazio partekaturik eraikitzeko.

8. MURGILTZE EREDUA EKIDITEN DA: Ez dago euskalduntzeko bermerik.

ELAk Aurreproiektuan esaten denaren eta esaten ez denaren analisia egin nahi du. Euskara ardatz izango duen eredu eleaniztuna aipatzen da. . Are gehiago, hemendik aurrera hiru irakas-hizkuntza izango direla azaltzen da (hizkuntza horren irakaspenaz gain). Hau da, egungo hizkuntza ereduaren sistema mantenduko da eta, gainera, D ereduaren gaztelaniak eta atzerriko hizkuntza batek irakas-orduak irabaziko dituzte euskararen kaltetan.

Aurreproiektuaren arabera lehen hezkuntza amaitutakoan ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz B1 maila izan beharko dute eta bigarren hezkuntza amaitzean B2 maila. Ez dago euskaraz maila hori bermatzerik egungo hizkuntza ereduak mantentzen baldin badira. Kezkagarria da, baita, legearen esparru ezberdinetan "*eleaniztasun orekatua*" aipatzea, euskarak eta gaztelaniak abiapuntu bera izango balute bezala.

Euskararen ezagutza nahikoa gutxieneko kohesio elementua izan behar da gure hezkuntza sisteman, gaztelaniarena bermatuta baitago. Euskararen ezagutza nahikoa ez dago eskolaren bitartez soilik bermatzerik, baina eskola ezinbestekoa izango da. Hizkuntza ereduak porrot egin dute euskararen ezagutza erabat hedatzearen helburuan; aldaketa bat ezinbestekoa da: murgiltze eredu behar da.

ELAk murgiltze eredu nahi du eskoletako jarduerak guztiak euskaraz eskainita, euskararekin lotura emozionala lortzeko programak nahi ditu, aisialdia ere arautzea eskatzen du haurrek euskaraz gozatzen ere ikas dezaten eta Euskal Herrira etorritako edo euskara oso arrotz duten haurrentzako harrera programa zehatzak nahi ditu (euskara ikasteko baliabide gehigarriak ezarrita eta ikasgela barnean laguntza emango duten hezitzaileekin).

9. EZ DAGO HEZKUNTZA DESMERKANTILIZATZEKO NEURRIRIK

Hezkuntzaren merkantilizazioa ez da soilik heldu sare banaketaren eskutik, merkatuaren logika eskola guztietan sartzen da beste bide batzuetatik:

- Hasieran aipatu bezala, Espainiatik inposatutako kurrikulumak enpresen esku egongo diren langileak prestatzeari erantzuten dio, eta ez gizartearen behar orokorrei erantzuteari edo haurren zentzu kritikoa pizteari.
- Ikasketa materialen sorrera editorialei kendu behar zaie eta hezkuntza komunitateei eman. Hezkuntza Sailak baliabideak behar ditu heziketarako materialen oinarriak sortzeko eta eskolei baliabideak esleitu behar dizkie beren moldaketak egin ahal izateko, editorial pribatuen esku utzi gabe materialen sorrera.
- Multinazionalak eskoletan sartzen ari dira, adibidez ordenagailu merkeak emanez eta ordenagailuekin batera beren programa informatikoak inposatuta. Ezinbestekoa da, hemen ere, hezkuntza komunitateari baliabideak ematea multinazionalen inposiziorik ez onartzeko, haurren datuetarako sarbidea galarazteko eta software librea garatu ahal izateko.
- Hainbat enpresa, finantza erakundeak adibidez, eskoletan sartzen ari dira programa zehatzen bitartez. Haurrek konpetentziak jasotzearen aitzakiarekin enpresa zehatzei ateak

irekitzen zaizkie. Konpetentziak jasotzeak gaitasun kritikoa eskatzen du, eta hori ezin da egin irabazi-asmoak dauzkaten enpresen eskutik.

## 10. HEZKUNTZA LAIKORAKO URRATSIK EZ

Legeak ontzat ematen da LOMLOEk ezarritako marko konfesionala ELAren ustez erlijio konfesionalen irakaskuntza desagertu egin behar da edo, behintzat, eskola jarduera arruntetik atera. Haur guztiek behar duten ezagutzen barnean dago Munduko Ikuskerak eta Erlijioen ezagutza. Horregatik, munduko ikuskerak eta erlijioen ezagutza islatuko duen beste irakasgai bat ezarri beharko litzateke, ezagutza zientifiko gisa. Egungo erlijio irakasleen lanpostuak bermatuta trantsizio bat egin beharra dago irakasgai konfesionala desagertzeko. Era berean, aipatutako irakasgai horretarako sarbidea erabat normala izan behar da, eta Elizek ezin dute inongo parte-hartzerik izan.

## 11. BESTELAKOAK

ELAk Oinarrietan beste gai batzuk ere faltan botatzen ditu:

- Jantoki eredia ez da aipatzen. ELAren ustez jantoki zerbitzua hezkuntza prozesuaren parte bilakatu behar da eta eskolen autonomiaren baitan jantoki ereduak moldatzeko aukera egon behar da, beti ere langileen lan-baldintza egokiak bermatuta.
- Arrakala digitalak gainditzeko baliabide bereziak jaso beharko lirateke. Pandemiak oso argi erakutsi du ikasle batzuen zaugarritasuna behar bezalako baliabideetarako sarbiderik ez daukatelako.

## NEGOZIAZIORAKO PREST

ELAk sindikatuokin izan ez den negoziaketa ematea nahi du eta horretarako Hezkuntza Legearen inguruan lan-baldintzei buruzko mahai bat osatzea eskatzen dugu. Bertan sindikatuon eskaerak bideratzea eskatuko dugu, bereziki aipatutako lan-baldintzei buruz hitz egiteko, baina baita sindikatuontzat Hezkuntza Legean, edo bere bueltan onartzea garrantzitsua liratekeen gaiekin.

Ez ditugu lan baldintza zehatzak negoziatu nahi, Hezkuntza Lege berrian zehar langileek izan behar duten papera kokatu nahi dugu eta kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko ezinbestekoak diren lan-baldintzak adostea.

Mahai horren bueltan akordio zabalagoak lantzeko prest gaude, baita lan-baldintzekin loturarik ez duten gaietan ere, orain arte ez baita horretarako aukerarik izan sindikatuontzat.

## AKORDIO BATERAKO EDUKIAK

ELAren ustez akordio batek oinarritzko gaietan norabide berria eta argia ekarri behar du diagnostikoan aipatutako ajei buelta emateko.

Bi esparru aurreikusten ditugu:

- Lan baldintzei dagokiona. Hemen akordio politiko-sindikal bat nahi dugu, ondoren bi alderdiek dagozkion negoziazio mahai guztietara gai horien garapena eramateko.
- Hezkuntza eredu berri bati dagozkionak. Kasu honetan Hezkuntza Legean ezinbestean jaso beharko liratekeen gutxieneko batzuk proposatuko ditugu.

## LAN BALDINTZAK

- 1.- Gehiengoan jokoan onartzea negoziazio kolektiboan: Hezkuntza Legean parte-hartze sindikalerako espazio berri bat jasotzea nahi dugu eta hezkuntza sistema osoko langileen lan-baldintzetan eragingo duten gaiak espazio horretan eztabaidatzea nahi dugu. Mahai horren bueltan gobernuak, patronalak eta sindikatuak egon beharko liratekeela iruditzen zaigu eta akordioak emateko hiru aldeetako ordezkariak gehiengoaren oniritzia izatea.
- 2.- Egonkortasuna sistema publikoan: Hezkuntza publikoan behin-behinekotasuna 3 urtetan %8tik behera kokatzeko ibilbide zehatz bat adostu nahi dugu. Eta hau epe laburrean izan behar da, orain da unea. Horrez gain, hemendik aurrera behin-behinekotasuna beti %8tik behera egongo dela bermatzeko urtero EPE deialdiak egongo direla jasotzea nahi dugu eta deialdi horietan hutsik geratutako lanpostu guztiak eskainiko direla.
- 3.- Birkokapen akordio iraunkor bat: Itundutako eskolek finantziario publikoak jasotzeko birkokapen akordioa aplikatzeko obligazioa izatea nahi dugu.
- 4.- Lan-baldintzen homologazioa: Itundutako langileek 5 urteko prozesuan hezkuntza publikoko langileen lan-baldintzak izateko ibilbidea adostea nahi dugu.
- 5.- Lanpostuak handitzea: Egun hezkuntza sistema guztian dauden lanpostuak mantenduko direla bermatzea nahi dugu, horretarako kolektibo bakoitzean gutxieneko lanpostu estruktural kopuru zehatz bat adostea nahi dugu. Aurrekoa oinarri hurrengo urteetan langile kopurua nola handituko ditugun adostu nahi dugu, behar bereziak dauzkaten ikasleentzat laguntza ematea lehenetsita.
- 6.- Langileen hautaketa sistema berrikustea: EPE eredu berri baterako trantsizioa adostea nahi dugu. Gaitasun memoristikoen gainetik langileek lanerako duten gaitasuna baloratzea nahi dugu. Irakasleen kasuan gaitasun pedagogikoak baloratzea nahi dugu eta horretarako ebaluazio jarraiko sistema bat ezar dadila.
- 7.- Itunpekoan kontratazioaren gardentasuna: Itundutako eskolek egiten dituzten lan-eskaintza guztiak publiko egitea nahi dugu. Hau bermatzeko web orri bat sortzea nahi dugu, bertan eskaintako lanpostu guztiak azaldu daitezkeen, lanpostu horietarako aurkezten diren hautagaiak eta beren merituen azal daitezkeen eta aukeratutako langileak ere publiko egin daitezela.

## HEZKUNTZA EREDU BERRI BAT

- 1.- Kurrikulum berri baterantz: Hezkuntza Legeak kurrikulum berri bat sortzeko prozesu parte-hartzaile bat jasotzea nahi dugu, hezkuntza komunitatearen parte-hartze zabala izango duen lanketa. Legeak eskuduntza horiek EAerako nahi ditugula jasotzea nahi dugu. Eta EAEn adostutako kurrumuluma Espainiako Gobernuaren aurrean elkarrekin defendatzeko akordio soziopolitikoak nahi dugu. Kurrikulum aldaketa honetan ELAk erlijio profesionalaren desagertzea defendatzen du, eta hau munduko siniskera eta erlijioen ezagutza zientifikoarengatik ordezkatzeko.
- 2.- Ikasmaterialak modu autonomoan sortzea: Legeak ikasmaterialak sortzeko entitate publiko baten eraketa jasotzea nahi dugu. Entitate horren egiteko litzateke ikasle guztiei ikasmaterial guztiak eskaini ahal izatea. Aurrekoaz gain, eskola guztiek oinarrizko material horiek garatzeko, moldatzeko eta zehazteko baliabide eta profesionalak izatea nahi dugu. Material horietan Euskal Herria marko gisa jasotzea nahi dugu elementu guztietan (elementu kultural, politiko, geografiko, historiko eta soziologiko gisa).

3.- Euskarazko murgiltze eredua: Guk argi diogu euskalduntzeko aukerak ematen dituen eredu bakarra D eredua dela. Horretaz gain, irakas-hizkuntza izateaz gain, euskararen presentzia bermatuta egon behar da eskolaren jarduera guztietan (jantokian, eskolaz kanpoko ekintzetan, jolasorduen zaintzetan, autobus zerbitzuetan...). Egoera horretara iristeko trantsizio bat bermatzea nahi dugu. Era berean, euskararekin lotura emozionala sortzeko plangintza nahi dugu, horretarako euskal sortzaileen eskaerak jasotzea nahi dugu, batetik, eta eskoletako euskararen erabilera periodikoki neurtu (kale erabilera neurtzeko metodologia erabiliz), publikatu eta hobetzeko plangintzak izatea.

4.- Publifkazioarako markoa: Eskola pribatu bateko komunitateak bere publifkazioa eskatuko balu, Hezkuntza Legeak prozesu hori gauzatzeko gutxieneko oinarriak jasotzea nahi dugu. Oinarri horien artean egon beharko litzateke langileen subrogazioa. Diagnostikoan aipatutako sistema duala gainditzeko eta gure hezkuntza sistema publiko burujabea eraikitzeari begira, beste neurriekin batera, hau epe laburrean ezinbestean hartu beharreko neurria da, ondorengo urratsak bideratzen lagunduko baitu.

5.- Doakotasunaren bermea: Neurri ezberdinak aurreikusten ditugu:

- Legearen bitartez doakotasuna bermatzeko ikuskatzaile talde bat sortzea nahi dugu. Talde horrek gutxienez 30 ikuskatzaile izatea nahi dugu.
- Era berean, finantziazio publikoa jasotzen duten eskola guztiek bere kontuak publiko egiteko obligazioa jasotzea nahi dugu.
- Doakotasuna bermatzeko “Gardentasun Mahai” bat sortzea nahi dugu. Bertan sindikatu, guraso elkarte eta alderdi politikoak egotea nahi dugu. Mahai horretako kideek eskubidea izan behar dute eskola guztien kontu guztiak berrikusteko, kontabilitate apunteak barne.
- Itunpeko eskolen finantziazio sistema berriaren detaileak nahi ditugu.
  - Azpiegituren ordainketa nola egingo den zehaztea nahi dugu. Horrekin lotuta, azpiegituren finantziazioa eskola guztientzako pareko irizpideen arabera egin behar dela iruditzen zaigu, ez da posible luxuzko instalazioak diru publikoz ordaintzea. Instalazio horiek existitzen diren tokietan ikasle guztiek sarbidea izatea bermatzea nahi dugu.
  - Eskolaz kanpoko jarduerak nola ordainduko diren ere argitu beharra dago, zeharkako hautaketa sistema bilakatu ez dadin edo ume batzuek bere gelakideek parte-hartzen duten jardueretako sarbidea izan dezaten.

6.- Segregazioarekin amaitu: Legeak eskola guztiek dauden herriko ikasle zaurgarrien proportzioa mantentzeko obligazioa jasotzea nahi dugu. Eta eskolako ikasleak eskola ezarrita dagoen herritik kanpokoak direnean, herrialdeko proportzioa betetzea nahi dugu. Aurreko hori bermatzeko:

- Matrikulazio sistemaren arabera ezinbestean eskola guztiek ikasle zaurgarrientzako plazak erreserbatzea nahi dugu, eta beraiekin bete ezean hutsik geratu behar izatea urtean zehar matrikula biziaren bitartez betetzeko aukera izan dezaten.
- Erreserbatutako plazak ikastetxea dagoen herriko zaurgarritasun tasaren proportzio berekoa izatea nahi dugu, ondorioz, ikasgela guztiek proportzio hori derrigorrez bete behar izatea. Ikastetxean dauden ikasle gehiengoa ez direnean ikastetxea dagoen herrian bizi, herrialdeko zaurgarritasun tasa erabiltzea nahi dugu.



- Bost urte barru finantziario publikoa jasotzeko baldintza gisa ikastetxeek zaugarritasun tasa horretatik gehienez %20 desbideraketa baimentzea nahi dugu, horrela aurreko neurriak betearaziko direla bermatu ahal izango da.
- Eskolek aurreko urteetan jaso dituzten ikasle kopurua kontuan izanik, derrigorrez dagokion proportzioaren arabera plaza erreserba egin behar izatea ikasle zaugarrientzat.

7.- Baliabideak: Legeak hiru urteko epean Europako batz-besteko inbertsio publikoa egingo dela bermatzea nahi dugu, ondorioz, Barne Produktu Gordinaren %4,7 bideratuko dela hezkuntzara.

ELAren ustez eskolen aurrekontuak orekatzaileak izan behar dira. Hau da, behar gehien daukaten ikasleek baliabide gehigarriak izan behar dituzte. Matrikulazio orekatua izateak ez du bermatzen ikasle guztiek aukera berdinak izango dituztenik, auzo eta herri ezberdinen artean oinarritzko desorekak baitaude eta, ondorioz, ez da berdina ingurune sozioekonomiko altuko auzo edo herri bateko eskolako haurrek dauzkaten baliabideak, bereziki eskolaz kanpo, eta auzo edo herri txiroetako haurrek dauzkatenak. Esaterako, dirusarrera altuko auzoetako haurrek aukera gehiago dute eskolaz kanpo ingelera klaseak jasotzeko auzo txiro batekoek baino, eta eskolak hori orekatzeko baliabideak izan beharko lituzke.

8.- Ikastetxeen autonomia bermatzea: Hezkuntza Hitzarmenean hainbatetan azaltzen da autonomia eta beste hainbat organoren sorrera aipatzen da. ELAren ustez oso garrantzitsua da organo horien kideen hautaketa eta izango dituzten baliabideak argitzea eskolen autonomia erreala izango bada. ELAren ustez eskolek autonomia eta baliabideak behar dituzte hurrengoetarako:

- Eskola komunitateko kide guztiek eskolen kudeaketan zuzenean edo ordezkaritza bitartez aritzeko.
- Ikastetxeetako organo partekatuetan ikas-proiektuen zehaztapena eztabaidatu eta erabakitzeke.
- Aurrekoen arabera eskolak eskaini behar dituen lanpostuetan profil zehatzak deskribatzeko, ondoren hautaketa administrazioari egokitu arren.
- Ikasmaterialak eskolako beharrei moldatzeko baliabideak.
- Zuzendaritza lana egin ahal izateko kudeaketa langileak egongo direlatzea eta zeregin horiek zuzendaritzei kenduko zaizkiela bermatzea.
- Gurasoek planifikazio eta kudeaketa lanetan inplikatu ahal izateko laguntzak ematea, bai bestelako lan batzuekin hau bateragarri egiteko bai denbora aldetik suposatzen dezakeen kostuarengatik.

9.- Eskolen desmerkantilizazioan urratsak: 5 urtetan hezkuntza sistema software librearen bitartez funtzionatzeko trantsizioa nahi dugu.

Euskal Herrian 2022ko Irailaren 20an.







[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**